

2025



ODIETAKO UDALAREN

BULETINA

6

Honako buletinaren testuan Udalaren Osoko Bilkuraren akten edukiaren **LABURPENA** azaltzen da.

Horien **TESTU OSOA** Odietaiko Udalaren webgunean (www.odieta.es/eu/) dago erabiltzaile guztientzat eskuragarri.



2024/12/30EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

Osokotako Udalaren Osoko Bilkura 2024ko abenduaren 30ean egin zen, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Alberto Urdaniz Elizondo alkate jauna buru zela, eta Alfonso Araujo Guardamino idazkari jauna bertan zela.

Zinegotzi guztiak bertan izan ziren. Saioa "GRAB PLENOS" izeneko USB fitxategian grabatu eta gorde zen, "Pleno 30-12-2024" izenarekin, udalbatzako kideentzat eta legeak eskubide hori ematen dienez eskuragarri.

Idazkariak gogorarazi du paperezko aktak esku-hartzeen laburpena jasotzen duela, adierazpenen literaltasunaren gainetik edukia lehenetsiz, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Ane M. Buitron zinegotziak (EH Bildu) jakinarazi zuen berak ere saioaren grabaketa egingo zuela, 6/1990 Foru Legearen babesean.

Lehendakari jaunak bilkurari 19:05ean hasiera eman ostean, gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio.

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN IRAKURTZEA ETA ONARTZEA.

Alkateak, Urdaniz jaunak, 2024ko irailaren 24an egindako Ohiko Bilkuraren aktaren edukari eragozpenik ba ote dagoen galdetu du. Akta deialdiarekin batera banatu da.

Aktaren edukari eragozpenik ez dagoenez, akta **ONARTU DA, Udalbatzako kide guztiak aho batez hala erabakita.**

2. 2025EKO EKITALDIKO AURREKONTUEN ESPEDIENTEAREN ETA HURA GAUZATZEKO OINARRIEN HASIERAKO ONARPENA ETA 3. EH BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA "AURREKONTU PARTEHARTZAILERIK" BURUZ.

1. Alkateak, Urdaniz jaunak, lehendabizi EH Bildu Udaltaldearen eskatutako mozioaren gaia jorratzea proposatu du, izan ere, onartuz gero, aurrekontuen edukia aldatuko litzateke.

2. Alkateak, Urdaniz jaunak, Gobernu Taldearen aurrekontu-proposamena azaldu du. Aurrekositako gastuen zenbatekoa 325.000 euro ingurukoa da, eta diru-sarrerena, berriz, 400.000 euro ingurukoa.

3. Aurten, Europak eskatzen dituen arau fiskalak bete behar dira berriro, gastuaren arauari eta aurrekontuen egonkortasunari dagozkienak, eta horregatik superabita dagoela azpimarratu du.

4. Urtean zehar obraren bat egitea planteatzen bada, dagozkion aurrekontu-aldaketak egingo dira. Adierazi du, halaber, ohiko gastuak igo egin direla aurten, eta inbertsio

gisa aurreikusitako direla herri barruko zenbait bidetan asto-bizkarren azpiegitura jartzea eta Erripako autobus geltokia urbanizatzea.

5. Ane Miren Buitron zinegotziak (EH Bildu) hartu du hitza. Bere ustez, hobe da bi gai horiek bakoitza bere aldetik lantzea eta gai-zerrendak ezartzen duenaren arabera egitea. "Aurrekontu Parte-hartzailei" buruzko atal bat onartzeko proposamenari dagokionez, adierazi du urteak daramatzatela hori planteatzen, eta dagokion eskaera egin zela Udalean, onartu beharreko aurrekontuen edukian sartzeko behar besteko denborarekin.

6. Gobernu Taldearen proposamena bozkatu da eta aldeko 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza) eta kontrako 2 boto (Buitron eta Peñalver) lortu dira. Absentziorik ez.

7. Honako erabaki hauek hartu dira:

- 2025eko Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena ematea.

- Aurrekontua gauzatzeko oinarriak onartzea.

- Espedientea jendaurrean jartzea 15 egun baliodunetz.

- Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsita geratuko da.

- NAO on argitaratuko da eta Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako Departamentura bidaliko da.

4. 2025ERAKO LAN-EGUTEGIA ONARTZEA.

Alkateak, Urdaniz jaunak, gaia aipatu eta azaldu die bertaratutakoei. Gai hauek azpimarratu ditu: Nafarroako Gobernuak ezarritako jaien eredu ofizialari jarraitzen zaio eta, urtero bezala, San Anton eguna, urtarilaren 17a, aukeratu da herriko jai gisa.

Bozketa:

Alde: aho batez.

5. 2025. URTEAN KIROL JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA.

Odietako Udalak 2025ean Kirol Jarduerak Egiteko Laguntzen Deialdia onartu du, 950 euroko zuzkidurarekin.

Onarpenaren testuingurua:

- Proposamena Urdaniz alkate jaunak azaldu zuen.

- Aho batez eta Udalbatzaren gehiengo osoz onartu zen.

Deialdiaren xehetasunak:

1. Deialdia arautzen duten oinarriak onartu dira.

2. Gastuaren baimena: 950 euro bideratu dira laguntza hauetara.

3. Deialdi hau Udalaren webgunean eta iragarki-taulan dago ikusgai.

6. 2025EKO EKITALDIRAKO ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA.

2025ean Enplegua Sustatzeko Laguntzen Deialdia onartu du Odietako Udalak, aurreko urteetan ezarritako deialdiekin jarraituz.

Onarpenaren testuingurua:

-Proposamena Urdaniz Alkate jaunak azaldu zuen.

-Aho batez eta Udalbatzaren gehiengo osoz onartu zen.

Deialdiaren xehetasunak:

1. Deialdia arautzen duten oinarriak onartu dira.

2. Gastuaren baimena: 2.600 euro bideratu dira laguntza hauetara.

tu dira laguntza hauetara.

3. Deialdi hau Udalaren webgunean eta iragarki-taulan dago ikusgai.

7. 2., 3., 4. eta 5. AURREKONTU-ALDAKETAK (2024KO EKITALDIA). HASIERAKO ONARPENA.

Alkateak, Urdaniz jaunak, gaia aipatu eta azaldu die bertaratutakoei. 2/2024 zk. aldaketa Ostitzeko urbanizazio berriaren mantentze-gastuei dagokie. 3/2024 zk. aldaketa autobuseko garraio publikoari dagokion gastuaren kofinantzetari buruzkoa da. 4/2024 zk. aldaketa Ostitzeko Kontzejuaren aldeko konpentsazioari buruzkoa da, urbanizazio berriko elektrizitate-kontsumoaren gastuengatik eta urbanizazio berriaren dagoen BOEko orubearen zati bat erostean Notariotzak dituen gastuengatik. 5/2024 zk. aldaketa kontzejuer obrak egiteko ematen zaizkien diru-laguntzei buruzkoa da.

Aldaketen xehetasunak:

1. 2/2024 aldaketa: Ostitzeko urbanizazio berriaren argiteria publikoaren instalazioa mantentzea. Kopurua: 2.500 euro. Kalteak eragin dituen ibilgailuaren asegurutik kobratutakoarekin finantzatu eta hirigintzako aholkularitzarako partidatik gastu gutxiago eginda.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gue-

rendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

2. 3/2024 aldaketa: Bidaiarien hiriarteko garraioa (autobusa Sanferminetan). Kopurua 300 euro. Udalaren TBko zutoinaren mantentze-gastu txikiagoarekin finantzatu.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gue-
rendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

3. 4/2024 aldaketa: Ostitzeko Kontzejuari urbanizazio berriaren argindarraren ordainketa. Kopurua 1.000 euro. Ostitzeko BOE etxebizitzetarako orubearen zati bat erosteagatik notariotza-gastuak ere ordainduko dira. Kopurua 800 euro. Hirigintzako aholkularitzarako partidatik gastu gutxiagoarekin finantzatu.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gue-

rendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

4. 5/2024 aldaketa: Ziaurrizteko Kontzejuari diru-laguntza, kirol instalazioa duen hiri lursaila erosteko. Kopurua: 20.000 euro. Suteen aurkako baliabideen eta abiadura-motelgailuen hornidura-partidatik gastu txikiagoarekin finantzatu.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gue-
rendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Onartzeko prozedura:

- Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta 15 eguneko alegazio epea ireki da.

- Alegaziorik ez badago, aldaketak automatikoki onartuko dira.

- Alegazioak egonez gero, Udalbatzak ebazti beharko ditu behin betiko onarpena eman aurretik.

8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTI-TUZIONALA.

Azaroaren 25a dela eta, Emakumeengana-ko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, Odietako Udalak adierazpen bat onartu zuen aho batez.

Adierazpenaren konpromisoak:

Nafarroako toki entitateetatik honako konpromisoak hartzen ditugu:

- Sentsibilizazio-kanpainak sustatzea.
- Toki-eremuan lan egiten duten profesio-nalen prestakuntza indartzea.
- Emakume eta seme-alabentzako ba-bes integraleko neurriak bultzatzea.
- Administrazioen eta entitateen arteko ekintzak koordinatzea.
- Tokiko berdintasun politikan biolentzia bikarioaren ikuspegia txertatzea.

Akta osoa ikusteko
hemen

<http://www.odieta.es/eu>



9. HAINBAT INFORMAZIO.

Alkateak, Urdaniz jaunak, honako gai hauek aipatu dizkie Udaltzako gaine-rako kideei:

- Udaltzako kideen soldatak direla eta NAARI zuzendutako gora jotzeko erre-kurtsoari dagokionez, errekurtsioa ezetsi egin zela adierazi du.
- Aurreko Osoko Bilkuran energia berriz-tagarren azpiegituren ezarpena arautze-ko Odietako UPOren aldaketa onartzeari

buruz hartutako erabakiari dagokionez, Nafarroako Gobernuak (Lurralde Anto-lamendua) "txosten globala" igorri duela eta Industria Sailak ere txostena igorri duela adierazi du.

- Toki Azpiegituren Plan (TAP) berria onartu da. Bi hilabete daude obrak pro-posatzeke, horretarako dagozkien me-moria baloratuak aurkeztuz. Gobernu Taldea Odietako Kontzejuekin bilduko da informazioa emateko.

10. PREMIAZKO MOZIOA: AURREKONTU ALDAKETA, 6/2024 ZK.

Mozio hau aztertu aurretik, premiazkoa dela onartu behar da.

Alkateak, Urdaniz jaunak, aipatu du Udalari jakinarazi berri diotela Na-farroako Gobernuari 18.027,10 euro ordaindu behar zaizkiola, "Tokiko eko-nomia bultzatzeko inbertsioetarako ka-pital transferentzien aparteko funtsaren" aurreiazko ekarpena itzultzeko espe-dientea dela eta. Kopuru hori horreta-rako ezarritako borondatezko epean ordaintzen ez bada, interesak sortuko dira eta azkenean kobratu egingo da.

Aurrekontu aldaketa bat onartzea pro-posatzen da, gastu-partida bat gaitzeko eta kopuru horren diru-sartzea egiteko. Udalak Osoko Bilkura honen gai-zerrenda egin ondoren izan zuten ordaintzeko be-behar horren berri.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

Kontra: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Abstentzioak: bat ere ez.

Aldaketen xehetasunak:

6/2024 aldaketa: Covid-19aren funtseta-rako diru-laguntza itzultzea. Diruzaintzako gaineratikoarekin finantzatua.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

Kontra: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Abstentzioak: bat ere ez.



2025/03/18AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK: Oihane Orrio Rey, Iñaki Guerendiain Azpiroz, Carolina Azanza Montalvo, Ane Miren Buitron Zazpe, Juna Peñalver Hermida, Anne Oyarzun Domeño eta Alberto Urdaniz Elizondo.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK: BAT ERE EZ.

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN IRAKURTZEA ETA ONARTZEA.

- Alkateak, Urdaniz jaunak, galdetu du ea eragozpenik dagoen 2024ko abenduaren 24an egindako Ohiko Osoko Bilkuraren aktaren edukia.
- Buitron zinegotzi andreak (EH Bildu) aipatu du:
 - Ez daude ados aktaren edukiarekin, akats bat baitu. Gai-zerrendako 4. gaiko bozketan, 2025erako lan-egutegiari buruzkoa, emaitza gaizki jasota dago, EH Bilduk aurka bozkatu zuelako eta aktan, berriz, aldeko botoa eman zuela eta erabaki hori aho batez hartu zela adierazi baita. Hori dela eta, atal horretan aktaren edukia zuzentzeko eskatu du.
 - Osoko Bilkuraren grabazioen edukia ulertu ahal izateko, gai-zerrendako gai bakoitzaren deialdia egin ondoren, gai-zerrendako gai zehatza onartu den ala ez eta dagokion bozketaren emaitza zein den esan beharko litzateke.
- Idazkariak esan dio:
 - Aktaren zirriborroa kontsultatuko dela eta, hala badagokio, akta zuzenduko dela eskariaren arabera.
 - Gai-zerrendako gai bakoitzaren bozketa amaitu ondoren, idazkariak erabaki bakoitza onartu den ala ez eta bozketaren emaitza aldarrikatuko du.
- Akta bozkatu da, aldeko 5 botorekin (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza) eta kontrako 2rekin (Buitron eta Peñalver). Onartu egin da.

2. 2024 KONTUEN ESPEDIENTEA ONARTZEA.

2024 Kontuen Espedientea aurkeztu eta behin betiko onartu zen, honako hauekin:

- Diruzaintzako gaineratikoa: 169.643,02 €
- Onartutako obligazio garbiak: 311.482,01 €

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

3. UDAL-ERROLDAREN ZIFRAK 2025-1-1EAN

2025eko urtarrilaren 1ean, 367 zeuden udal-errolan, horietako 195 gizon eta 172 emakume zirelarik.

Aho batez onartu da.

4. GKE-ENTZAKO LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK 2025.

Osoko Bilkurak onartu zuen 2.600 euro bideratzea laguntza horietarako 2025ean, honela banatuta:

- 1.300 euro Paris 365 jantoki solidariora.
- 1.300 euro UNRWA Nazio Batuen Agentziari, Palestinan.

Aho batez onartu da.

5. AURREKONTU-ALDAKETA, 1/2025 ZK.

Alkateak, Urdaniz jaunak, azaldu du Erripan autobus-geltoki bat egokitzeko obretarako gastu-partida 47.500 eurotan handitzeko asmoa dela. Partida hori 2025eko aurrekontuetan bazetorren, baina handitu egin

behar da, eta igoera hori 2024ko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gaineratikoa kontura izango da.

Aho batez onartu da.

Akta osoa ikusteko
hemen

<http://www.odieta.es/eu>



6. "ERRIPAN AUTOBUSAK GELDITZEKO LEKU BAT EGOKITZEKO" LANAK KONTRATATZEA.

Aho batez onartu da.

Akordioaren xehetasunak:

- Udaletxea dagoen lursailean Erripa eta Gendulain herrietako garraio geltoki berria egokitzeko lanak.
- NA-411 errepidean "asto-bizkar" motako abiadurako bi motelgailu jartzea.

- Lanen zenbatekoa: 80.045,08 euro, BEZa barne.

- Proiektuaren idazketa eta obraren zuzendaritza: 6.403,61 euro, BEZa barne.

- Lizitazio modua: prozedura irekia Nafarroako Kontratazio Atarian.



7. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUCIONALA.

• Alkateak, Urdaniz jaunak, azaldu du testua Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak bidali diola Udalari.

• Ane Miren Buitron zinegotziak (EH Bildu) azaldu du Odietako Udalak Osoko Bilkuran gai honi buruzko hainbat adierazpen ofizial onartu dituela, eta haietan zenbait konpromiso, etab. hartu direla, baina gero erabaki horiek ez direla jarduera zehatze-

tan islatzen edo adierazten, eta uste du hori egin beharko litzatekeela.

Aho batez onartu da.

Adierazpenaren konpromisoak:

• Sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea eta ezartzea.

• Generoko soldata-arrakalaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak garatzea.

• Ordaindu gabeko lana aintzatesten eta balioesten duten tokiko politikak inplementatzea.

• Gure entitateetako langileei genero-berdintasunean etengabeko prestakuntza eskaintzea.

• Mugimendu feministaren ekarpenak eta lana aintzatestea.

8. ODIETAN EUSKARA ERABILI ETA SUSTATZEKO ORDENANTZA BAT EGITEKO MOZIOA, EH BILDUK PROPOSATUTA.

Ane Miren Buitron zinegotziak (EH Bildu) mozioa azaldu du:

• Arrazoa Odietako auzokide batzuen eskariz dator, Udalean euskara gutxi erabiltzen dela uste dutelako, ofizial administrariak hala egiten badu ere.

• Euskararen Foru Legearen arabera, Odietan eremu mistoan egon arren, errealitate linguistikoa ukazina dago, eta udal jardura eta zerbitzuei dagokienez, hizkuntzaren erabilera Ordenantza baten bidez arautu beharra dago.

• Udalaren esku jarri da Ordenantzaren testua prestatzeko.

Alkateak, Urdaniz jaunak, erantzun du:

• Udala eta bere Udal Taldea, zalantzarik gabe, euskararen alde daudela, Uda-

lean kontratatutako langileek dagokien hizkuntza-eskakizuna betetzen dutela, urteak daramatzatela euskara sustatzeko eta administrazioan erabiltzeko aurrerapausoak ematen, baina ez dutela beharrezkotzat jotzen horri buruzko ordenantzarik egitea.

Ane Miren Buitron zinegotziak (EH Bildu) erantzun du:

• Esanez haien taldearen aldetik erantzun hori espero zutela, ez zaiela koherentea iruditzen, euskararen alde gutxi egiten dela uste dutela.

• Euskararen Ordenantza bat ez da tramite hutsa, aurrera pausoa baizik, udal karteria gaztelania hutsean dagoela eta udal webgunean ere ezer ez datorrela euskaraz. Beraz, iruditzen zaie, ereduak izanik, akats

bat dela ordenantza hau ez egitea, eta borondate politiko kontua dela erakusten du.

Urdaniz jaunak, beste zinegotzi batzuek bezala, Guerendiainek eta Oyarzunek, hori horrela ez dela erantzun diote, webgunea ere euskaraz dagoela, euskararen alde gauza asko egin direla eta egiten direla eta egiten ez diren jardueren adibide gehiago eskatu dizkiote.

Bozketa:

Alde: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Kontra: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

9. ODIETA UDALAREN WEBGUNEA EGUNERATZEKO MOZIOA, EH BILDUREN PROPOSAMENEZ.

Ane Miren Buitron zinegotziak (EH Bildu) azaldu du:

- Gai hau aurreko mozioarekin lotuta dago, eta udal-erabakiak hartzerakoan bere taldeak herritarren parte-hartzea eta garden-tasuna sustatzeko duen nahia irerantzuten dio.

- Aurreko bilkuretan Udalaren webgunearen edukiaren inguruan galdetu zen, eta aipatu du interesgarria iruditzen zaiela edukia aldatzea herritarren parte-hartzearen bidez egindako ekarpenak gehituz, hala nola Odietako herritarrek aurkeztutako argazkiak, pasadizoak eta abar.

Alkateak, Urdaniz jaunak, erantzun du:

Alkateak, Urdaniz jaunak, erantzun du:

- Proposatutako gauza batzuk onar litezke, hala nola argazkiak, baina anekdotak edo istorioak argitaratu baino lehen, edukia egiaztatu beharko litzateke, eta errealitatearekin bat datorren ziurtatu.

Ane Miren Buitron zinegotziak (EH Bildu) alkateari erantzun dio:

- Beraiek proposatzen dute webgunearen edukia jendeari zabaltzea, herritarrek parte har dezaten eta informazioa eman dezaten, eta uste dute orain webgunean dagoen testuari beste ikuspegi bat eman dakiokela.

Bozketa:

Alde: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Kontra: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

10. SAN URBANO EGUNA OSPATZEARI BURUZKO MOZIOA, EH BILDUK PROPOSATUTA.

Ane Miren Buitron zinegotziak (EH Bildu) azaldu duenez, herritarren ahalik eta parte-hartze handiena lortze aldera, Odietako biztanleekin adostu beharko litzateke ospakizun hori nola egin.

Alkateak, Urdaniz jaunak, erantzun dio San Urbanorako erromeria Odietako haranean ez ezik Nafarroako zati handi batean ere interesa duen jaia dela, eta herri askotako jendea datorrela bertara. Gutxika bere izaera erlijiosoa galtzen joan dela, baina oraindik ere jende asko etortzen dela eta adin guztietakoa, gainera. Ospakizuna igandean

izateak arrakasta duela, eta ospakizuna larunbatera pasa den inguruko herri batzuetan jendetza jaitsi dela. Horregatik guztia-gatik, ez datoz bat Mozioaren edukiarekin; izan ere, orain ekitaldia antolatuta dagoen moduan, eta, hala badagokio, hobetuta, irtenbide hobea da.

Bozketa:

Alde: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Kontra: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

12. GALDE-ESKEAK.

Ane Miren Buitron zinegotziari (EH Bildu) galdetu zaio zer jarduera egiten ari diren energia-komunitateak eratzeko, informazioa emateko eta sortzeko.

Zinegotziak adierazi du mezu elektronikoko bat emango dela, interesa duten pertsonen informazioa eskatu eta jaso dezaten.

11. HAINBAT INFORMAZIO.

Alkateak, Urdaniz jaunak, honako gai hauek aipatu dizkie Udalbatzako gainerako kideei:

- Babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena Ostitzen.

Interesarekin lehenengo bilera egin zen, beraien artean kooperatiba bat osatu behar zutenak, baina Odietako oso pertsona gutxi zeuden. Horregatik, BOE eraikitze orubea lehiaketa publikoaren bidez besterentzeko aukera baino ez da geratzen.

- Toki Inbertsioen Plana.

Onartu zen BSUJPBarekin (suteen aurkako plana) lotutako obra eta jardueren buruzko memoria baloratua egiten ari da.

- Iruñerriko Mankomunitatearen bilera.

Mankomunitateak eta Goñi, Txulapain, Atez eta Odietako udalek antolatutako bilera egon zen hondakin organikoaren etxeko konpostaren gaia lantzeko.

- Oinarrizko Osasun Eskualdea.

Nafarroako Gobernuak Osasunbidearekin hitz egin da, Gaskue eta Gelbentzu herriak Ultzamako Osasun Etxearen menpe egon daitezela saiatzeko.



2025/06/10EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK: Oihane Orrio Rey, Iñaki Guerendiain Azpiroz, Carolina Azanza Montalvo, Ane Miren Buitron Zazpe, Juna Peñalver Hermida, Anne Oyarzun Domeño eta Alberto Urdaniz Elizondo.

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN IRAKURTZEA ETA ONARTZEA.

-2025eko martxoaren 18ko Ohiko Osoko Bilkurako akta bozkatu da, aldeko 5 botorekin (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza) eta kontrako 2rekin (Buitron eta Peñalver). Onartu egin da.

2. OSTITZEKO LUR-SAIL BAT LEHIAKETA IREKI BIDEZ BESTERENTZEKO PROZEDURA, BOEKO 8 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO.

Odietako Udalak onartu zuen udalarena den lursail hori sustatzaile/eraikitzaile bati saltzea, (BOE) babes ofizialeko 8 etxebizitza eraiki ahal izateko.

Funtsezko puntuak:

- Katastroko 351 lursaila, 9. poligonokoa, Ostitzen.
- Azalera: 922,56 m²
- Eraikigarritasuna: 1.085,63 m²
- Erabilera: BOEko 8 etxebizitza.
- Prezioa: 233.115 euro.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

3. "AUTOBUS GELTOKIA ERRIPAN (NA-411)" LANEN ESLEIPENA.

Odietako Udalak Osoko Bilkuran onetsi zuen lan horiek LAKITA S.A. enpresari esleitzea, 80.045,08 eurotan, BEZa barne.

Nafarroako Kontratazio Atariaren bidez irekitako prozeduraren bidez egina, bi enpresa besterik ez ziren aurkeztu.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).


4. "E.I.O.Z.-AREN ORDENANTZA FISKALAREN HASIERAKO ONARPENA (HOBARIAK)"

Odietako Udalak **ahoz batez onartu zuen** Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalaren 4. artikulua aldaketa.

Sinplifikatu egingo dira zerga horren % 95eko hobaria energia berriztagarrietan inbertitzeko izapideak.

Prozedura:

- Hasierako onarpena.
- Jendaurrean iragarki-taulan eta N.A.O.n.
- Alegaziorik ez badago, behin betiko onetsita geratuko da.



5. 2, 3 eta 4 /2025 AURREKONTU-ALDAKETAK.

1. 2/2025 aldaketa: Ostitzeko urbanizazio berria argiteria publikoaren instalazioa mantentzea. Kopurua 2.000 euro. Diruzaintzako gaineratikoarekin finantzatua.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gurendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

2. 3/2025 aldaketa: Udal Artxiboaren antolamendu eta digitalizazio gastuak. Kopurua 5.900 euro. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin finantzatua, 2.255,44 euro eta diruzaintzako gaineratikoarekin gainerakoa.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gurendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

3. 4/2025 aldaketa: "Juridikoak eta Auzietakoak" partida handitzea. Kopurua: 55.900 euro. Diruzaintzako gaineratikoarekin finantzatua.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gurendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).



6. PREMIAZKO MOZIOA.

Mozioa aztertu baino lehen, premiazkoa dela onartu behar da, eta aho batez onartu da.

Mozioaren edukia:

"YALA NAFARROA elkartearen babes mozioa Palestinako egoerari."

Dokumentuak hau nabarmentzen du:

- Israelek palestinarren lurak eta baliabideak okupatzea eta lapurtzea.

- Herri palestinarren genozidioa.

- Nazio Batuen Ebazpenak ez betetzea.

Erabakiak:

- Palestinar herriarekiko elkartasuna adieraztea.

- Espainiako Gobernuari eskatzea instantzia guztietan Gazako zerrendan su-eten iraunkorra exijitu dezala.

- Giza Eskubideen arloko nazioarteko legeriarekin konpromisoa hartzen du.

Onarpena:

Aho batez.

2025/09/16AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK: Oihane Orrio Rey, Iñaki Guerendiain Azpiroz, Carolina Azanza Montalvo, Ane Miren Buitron Zazpe, Juna Peñalver Hermida, Anne Oyarzun Domeño eta Alberto Urdaniz Elizondo.

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN IRAKURTZEA ETA ONARTZEA.

-2025eko ekainaren 10eko Ohiko Osoko Bilkuraren akta bozkatu da. Onartu egin da aldeko 5 botorekin (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza) eta kontrako 2rekin (Buitron eta Peñalver).

2. ADISKIDETASUNEZKO HITZARMENAK ERRIPAKO AUTOBUS GELTOKIKO LANEK ETA ERRIPAKO ZEIN GENDULAINGO BIDEGURUTZERAKO SARBIDEAK EGITEKO LANEK KALTETUTAKO JABEEKIN.

Eskuhartzeak:

• Alkateak, Urdaniz jaunak, azaldu du Erripan egingo diren autobus geltokiko lanak eta eskolako autobusak Erripako herrigunera edota Iruñera zein Ultzamara joateko eman behar duen bira ahalbidetuko duen lanak direla-eta, bi adiskidetasunezko hitzarmen egin direla kaltetutako bi lur-jabeekin, eta konpentsazio ekonomiko bat hitzartu dela.

• Ane Miren Buitron zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea legezkoa den lehenengo partikularrekin hitzarmena egitea eta gero Udalbatzak balidatzea, bere iritziz alderantziz izan beharko luke.

• Udal idazkariak, Araujo jaunak, erantzun du beharrezkoa dela lur horiek izatea obrak egiteko. Hitzarmenak sinatuta, desjabetzea sai-

hesten da. Proiektua ikusita, jabeari planteatu zitzaion, zehaztu zen eta sinatu egin zen. Hitzarmena onartzeko eskumena alkateak berak izango luke, kopurua oso txikia baita. Kudeaketak bizkortu egin behar dira, beraz, hitzarmena ondoren onartzeak ez luke prozesua baliogabetuko. Bigarren hitzarmena desberdina da: planteatu da, besterik ez, baina metroak zehaztea eta sinatzea falta da, eta hori egingo da metroak zehaztasun handiagoz ezagutzen direnean, hortaz, ez litzateke aurreko arazoa emango.

• Ane Miren Buitronek hartu du hitza, eta esan du hitzarmen bat urtariletik sinatuta dagoela, eta bestea sinatu gabe dagoela, beraz, ez du ulertzen zer prozedurari jarraitu zaion, biek sinatuta egon behar luketelako edo biek sinatu gabe. Gainera,

Ultzanueta Zerbitzu Mankomunitatea ere sustatzaile gisa agertzen dela adierazi du, eta horrek nahasmen handiagoa sortzen duela. Gaia argitzeko eskatu du, eta zailtzak ditu ondo egin ote den.

• Idazkariak lehen esandakoa berretsi du, eta, bere iritziz, jarraitutako prozedura zuzena izan da eta legearen arabera, are gehiago hitzarmenak kaltetutako partikularren lurzorua okupatu aurretik onartu eta sinatuko direlako.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

4. EMAN GABE UZTEA BOEKO 8 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO OSTITZEKO LURSAIL BAT LEHIAKETA IREKI BIDEZ BESTERENTZEKO PROZEDURA.

Espediente hau onetsi eta izapidetu ondoren, EZ da eskabiderik aurkeztu lursail hori erosteko, beraz, eman gabe utzi da.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Akta osoa ikusteko
hemen

<http://www.odieta.es/eu>



3. "BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN ETA GEN.0.2 UNITATEAN HIRIGINTZA APROBETXAMENDUAREN %10 MONETARIZATZEKO HIRIGINTZA HITZARMENAREN" BEHIN BETIKO ONARPENA

Eskuhartzeak:

• Alkateak, Urdaniz jaunak, aipatu du espedientearen behin betiko onarpena dela, Alkatetzak hasierako onarpena eman ondoren eta jendaurrean jartzeko izapidea egin ondoren, horri buruzko alegaziorik jaso ez baitira.

• Juan Peñalver Hermida zinegotziak (EH Bildu) kexa bat adierazi du, gai-zerrendako gai horretako dokumentazioa luzeegia delako, eta, beraz, Osoko Bilkuraren deialdiaren data ikusita, ez dutelako sakon aztertzeke astirik

izan, eta hori gustatu izan litzaieke. Gainera, denbora asko darama espediente horrek izapidetzen. Dokumentazioko testuren batean (txosten juridikoa, non Ultzamako terminoa agertzen den) akatsak daudela ere ohartarazi du, nahasmena sortu eta planteatutakoari sinesgarritasuna kentzen diotenak.

• Udal idazkariak, Araujo jaunak, erantzun du sinaduraren tokiaren inguruko errata bat dela, saihesten ahaleginduko dena, eta bere eginkizuna bi udaletan, Ultzaman eta Odietan, betetzen duelako izan dela. Bi en-

titate horietan administrazio-prozesu eta espediente berdintsuak izapidetzen dira, eta, horregatik, txosten, hitzarmen eta gainerako dokumentuen eredu gisa berrienak erabiltzen dira, horiek hobetuz joateko.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gueren diain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).



5. BOEKO 8 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO OSTITZEKO LURSAIL BAT LEHIAKETA IREKI BIDEZ BESTERENTZEKO BIGARREN PROZEDURA.

Odietako Udalak aurreko Osoko Bilkuran onartu zuen udalaren jabetzako lursail hori saltzea, babes ofizialeko 8 etxebizitza (BOE) eraiki ahal izateko. Saldu ez denez, berriro lizitatuko da.

Eskuhartzeak:

• Alkateak, Urdaniz jaunak, hirigintza-zerbitzuei beste balioespen bat eskatu zaiela azaldu du. Balioespen hori aurrekoa baino merkeagoa da, eta, ondorioz, orubea berriro salgai jarriko da. Udal Taldeak interes handia du babes ofizialeko etxebizitzaren promozio hau atera dadin, horregatik, beste balioespen bat eskatu du.

• Ane Miren Buitron zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea zer gertatuko den prozedura berriro ere eman gabe geratzen bada eskaintza faltagatik.

• Alkateak, Urdaniz jaunak, erantzun du ez dakiela zer gertatuko den, baina, edonola ere, aplikatu beharreko legeriari jarraituko diotela.

• Udal idazkariak, Araujo jaunak, erantzun dio Udalak gutxieneko prezio tasatuan saldu behar duela, baina, zalantzarik gabeko porrotaren aurrean, beste balioespen bat egin litekeela, baxuagoa, hori guztia saltzeko dagoen zailtasuna kontuan hartuta, hau da, babes ofizialeko etxebizitzaren kostuen arazoa.

Funtsezko puntuak:

1. Prezioa: 140.534,80 euro.

2. Gainerakoa, aurreko lizitazioan bezala.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gueren diain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

6. ZIRKULAZIO ZERGAREN ORDENANTZAREN HASIERAKO ALDAKETA. EKO ETA ZERO IGORPENEN IBILGAILUEN HOBARIA.

Aho batez onartu da aldaketa hori, hobariak eskatu eta jasotzerako orduan zertxobait korapilatsua den egungo testuaren paragrafo bat zuzentzeko asmoz.



7. 5 /2025 AURREKONTU-ALDAKETA.

5/2025 aldaketaren xehetasunak:

Argiteria publikoaren energia elektrikoa Ostitzeko urbanizazio berrian. Kopurua 500 euro. Udal-erakinetan energia elektriko gutxiago gastatuz finantzatua.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Gue-rendiain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

8. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Peñalver zinegotziak (EH Bildu) 33. A Eren edukiaren inguruan galdetu du, erreklamacioari buruz.

Udal idazkariak, Araujo jaunak, erantzun du ebazpen horrek Udalaren erantzukizun zibileko prozesu bat hastea onartzen duela, eta Erripako bizilagun eta jabe baten eskariz sor-

tu zela, hainbat azpiegituren egoera dela-eta euri ugari eragindako kalteen ordaina eskatuz. Txosten tekniko bat eskatu zitzaion obra publikoetan esperientzia handia duen ingeniari enpresa bati eta honek txosten bidez zehaztu zuen gertatutakoaren errua ez dagokiola Odieta Udalari.

9. HAINBAT INFORMAZIO.

Alkateak, Urdaniz jaunak, honako gai hauek aipatu dizkie Udalbatzako gainerrako kideei:

- Odieta UPOren Egiturazko Aldaketaren Proiektua, Odieta mugapean jardura fotovoltaikoen eta abarren ezarpena arautzeko: prozedura zuzentzeke dago, eta hasierako testua zuzentzeko beste testu bat onartu behar da, ingurumen-gaiak sartzeko.

- Gendulain eta beste herri batzuetan autobus geltokiak egokitzeko lanak.

- Ultzanueta Zerbitzu Mankomunitatea: 2026. urterako eta hurrengoetarako EUTE handitzeko lanak aurreikusita daude (beste ontzi bat eraikiko da) eta Iraizotzen (ur-horniketaren zati bat berrituko da).

- Udako ludoteka euskaraz: Aurten ez da honakoa antolatu eskaera faltagatik. Horregatik, esleitutako 1500 euroak euska-

zako beste jardura batzuetan erabiltzea da asmoa.

- Pertsona partikular bati baimena eman zaio udaletxearen ondoko lorategian estazio meteorologiko txiki bat jartzeko. Inolako kalterik eragiten ez duen instalazioa da. Baimena "prekarioan" eman dute. Lortzen diren klimatologiari buruzko datuak udal webgunean zintzilikatuko dira, edonork ikusi ahal izateko.



2025/11/10EAN UDALBATZAK EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK: Oihane Orrio Rey, Iñaki Guerendiaín Azpiroz, Carolina Azanza Montalvo, Ane Miren Buitron Zazpe, Juna Peñalver Hermida, Anne Oyarzun Domeño eta Alberto Urdaniz Elizondo.

1. 2026KO PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA

Alkateak, Urdaniz jaunak, gaia azaldu die bertaratuei, honakoa adieraziz: aldaketa bakarra administrari-ofizialaren lanaldia da, eta hori luzatu egin da, egin beharreko lanek gora egingo baitute, batez ere Kontzejuen kontabilitatea eramateari dagokionez, eta zerbitzu bakoitzaren kostua kalkulatu beharko baita. Lanaldia % 87,31koa izango da.

Aho batez onartu da:

FUNTZIONARIOEN PLANTILLA ORGANIKOA: 2026.

Lanpostua	Plaza kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Osagarriak	Administrazio-egoera	Baldintzak
Idazkaritza	1	A	Administrazio-kontratuduna	Lanpostua: %35	Jabegabe	Ultzamako Udalarekin bateratua, hura baita burua

LAN-KONTRATUDUN FINKOEN PLANTILLA ORGANIKOA 2026.

Lanpostua	Plaza kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Osagarriak	Administrazio-egoera	Baldintzak
Administrari-ofiziala	1	C	Lankontratudun finkoa	Maila: % 12 Lanpostua: % 23	Aktiboa	Euskaraz jakitea: B2 Lanaldi laburra: % 87,31

2. 2026KO LAN-EGUTEGIAREN ONARPENA

Alkateak, Urdaniz jaunak, honako hau adierazi du: beste urte batzuetan bezala, San Anton egunean herriko jai izaten jarraitzen du, urtarrilaren 17an, eta aurreko larunbata denez, urtarrilaren 16ra aldatu da.

Bozketak:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiaín eta Azanza).

Kontra: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Erabaki da:

1. Nafarroan ofizialak diren jaiegunez gain, tokiko jaieguna, urtarrilaren 16a.

2. Odietakoa Udaleko urteko lanorduen banaketa, 1.390 lan-ordu, honela egingo da:

• Eguneko lanaldia, oro har, 6 ordu eta 24 minutukoa izango da, asteleheneetik ostiralera, 8:36tik 15:00etara.

• Erregistro Orokorra irekitzeko ordutegia eta jendea hartzeko ordutegia 9:00etatik 14:30ak arte izango da.



Akta osoa ikusteko
hemen

<http://www.odieta.es/eu>



3. 2026KO TASEI, PREZIO PUBLIKOEI ETA UDAL ZERGEI DAGOZKIEN KARGA-TASAK

Alkateak, Urdaniz jaunak, azaldu du ez dela aldaketarik egon 2025. urtearekin alderatuta, kontribuzio-zergaren kasuan izan ezik. Izan ere, zerga hori behin betiko ezartzen da higiezinen eta lursailen katastro-balioaren %0,25ean. Lege-xedapen bat bete behar zen, tasa %0,25eraino igotzeko egokitze-epea ematen ziguna, eta pixkanaka igotzen joan gara, duela hiru urte Odietako Balorazio Ponentzia onartu zenetik.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guendriain eta Azanza).

Kontra: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Erabaki da:

1. Onartzea udal zergen 2026ko ekitaldirako karga-tasak, indizeak eta ehunekoak, eta hasiera batean onartzea tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten udal ordenantzen aldaketa, haien zenbatekoak 2026ko ekitaldirako finkatuta.

2. Tarifen artikulua eta eranskinak ordenantzetan jasota dauden antzeko artikulua eta eranskinak ordezkatzeko dituzte, eta lehenengoei kontrajarrita daudenak indargabetuta geratzeko dira.

3. NAO, iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratzea.



4. 6/2025 ETA 7/2025 ZENBAKIDUN AURREKONTU-ALDAKETAK.

6/2025 zk., aparteko kreditua, gastu-partida berri bat sortzeko, aurrekontuan jaso ez dena, udal gastu berri bat dela eta. Gastu hori jaberik ez duten eta udalerrian aurkitzen diren etxeko animaliak jaso, zaindu eta adoptatu arte zaintzera bideratuko da. Udalarentzat betebeharrak berri bat da, lege berri bat ezartzen duena, galdutako txakurrak eta katua artatzera behartzen gaituena, txipa jartzera eta txertoa jartzera, hala badagokio, eta katuen kasuan zikiratzera. Orainxe bertan, hilean 600 euro gastatzen

ari dira adoptatu bitartean txakurtegi batera eraman behar izan diren bi txakurrik. Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergan aurrekusten diren diru-sarrerak handiagoekin finantzatzeko da, beraz, 3.000 euro gastu hori finantzatzeko erabil daitezke.

7/2025 zk., kreditu-gehiagarria, funtzionarioen montepioei ordaintzeko dagoen gastu-partida bat handitzeko. Nafarroako Gobernua da urtero kopuru hori finkatzen

duena eta 2025ean, urtearen erdian, kalkulu berri batzuk egin ditu, udal guztiok dezente gehiago ordaindu behar dugula suposatzen dutenak, derrigorrezko zerbait izanik. Nafarroako Gobernua diru-laguntza bat ematen du gastu hori hein batean finantzatzeko, baina ez du gastu osoa estaltzen, beraz, gainerakoa ere hiri-lurren balioigoeraren gaineko zergaren kontura izanen da.

Aho batez onartu dira.

5. 2025EKO ZIRKULAZIO ZERGA DELA-ETA IBARREKO KONTZEJUEI EGIN BEHARREKO TRANSFERENTZIEN ONARPENA.

Alkateak, Urdaniz jaunak, azaldu du, urtero egiten den bezala, kaleak zolatzeko eskumena kontzejuen esku utzi denez, diru-kopuru bat eman dela, dagokion gastua ordain dezaten, eta zirkulazioaren gaineko zergarekin bildutakoaren %60 transferitu dela.

Bozketa:

Alde: 5 boto (Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guendriain eta Azanza).

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 boto (Buitron eta Peñalver).

Transferentzia hauek onartzea erabaki da: Anotzibar 1.659,77 €, Ziaurritz 3.507,63 €, Gaskue 2.574,13 €, Gelbentzu 2.687,73 €, Gendulain 1.025,31 €, Latasa 1.034,80 €, Ostiz 5.632,73 € eta Erripa 4.071,09 €.



6. ALKATETZAREN 52/2025 EBAZPENAREN BERRESPENA. GAIA: "ITZIAR IRURE IBERO ODIETAKO ERREGISTRO ZIBILAREN ARDURADUN IZENDATZEA, ODIETA UDALAREN ADMINISTRARI-OFIZIALA.

Alkateak, Urdaniz jaunak, azaldu du berretsiko den ebazpenean Udalaren administrari-ofiziala Odietako Erregistro Zibileko idazkari izendatzea erabaki dela. Eginkizun hori orain arte udal idazkariak

betetzen zuen, baina kontua da, azkenaldian dena baliabide informatikoen bidez egiten denez, azken bolada honetan ziurtagiriak eta abar luzatzeaz arduratzen zena administrari-ofiziala zela, eta pertsoa hori

da beti udaletxean dagoena. Hori dela eta, izendapen hori planteatu da, hori baita zuzena.

Aho batez onartu da.

7. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO AZAROAREN 25EKO ERAKUNDE ADIERAZPENEA.

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Odietako Udalak aho batez onartu zuen "Indarkeria matxista digitalak arrasto erreala uzten du" adierazpena.

Adierazpenaren konpromisoak:

1. Emakumeen aurkako indarkeria digitala indarkeria matxista mota bat dela onartzea.
2. Herri eta lurralde eremuan lan egiten duten profesionalen prestakuntza indartzea (polizia, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza,

osasuna eta abar), indarkeria digitaleko kasuak detektatu eta modu goiztiar eta eraginkorrean jokatu ahal izateko.

3. Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak sustatzea, bereziki gazte eta nerabeei zuzendutakoak, teknologien erabilera arduratsu eta seguruaren inguruan, genero ikuspegitik.
4. Indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko espazio digitalak sustatzea, ikastetxeekin, komunikabideekin eta eragile komunitarioekin lankidetzan.

5. Indarkeria digitalaren biktima diren emakumeei arreta emateko baliabide eta protokolo espezifikoak bultzatzea.

6. Beste erakunde, sare, elkarte eta mugimendu feministarekin elkarlanean aritzea, indarkeria matxista digitala desagerrarazteko bidean modu koordinatuan aurrera egiteko.

7. Tokiko politika publikoak ezartzea, indarkeria matxista digitalaren prebentzioa, detekzioa, arreta eta ordaina sustatzeko.

8. PREMIAZKO MOZIOA.

Alkateak, Urdaniz jaunak, aipatu du Odietako EH Bilduk eskatu zuela gai-zerrendan "EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA" onartzea. Ezohiko osoko bilkuren kasuan, printzipioz, ezinezkoa da gai-zerrendatik kanpo gairik gehitzea. Kasu honetan posible litzateke, Udalbatzako kide guztiak bertan daudelako, baldin eta guztiak aho batez onartuko balute premiazkoa dela.

Ane Miren Buitronek (EH Bildu Odieta) hartu du hitza, eta azaldu du adierazpen hori Osoko Bilkura honen gai-zerrendan sartzea proposatu zutela, abenduaren 3an adierazpena onartu duten erakunde guztien argazki orokor moduko bat egiten delako, eta oso garrantzitsua delako irudi hori to-

kian zein estatu mailan zabaltzea. Hori dela eta, gai-zerrendan sartu ezinez gero, gai horri buruzko Ezohiko Osoko Bilkura egitea eskatuko luketela adierazi zuten.

Alkateak, Urdaniz jaunak, argitu du gaia aztertu beharreko gaien zerrendan sartu ez bazen, eskaria iritsi zenean osoko bilkuren deialdia dagoeneko eginda zegoelako izan zela, baina gaiari legezko irtenbide bat bilatu zitziola, eztabaidatu eta bozkatu ahal izateko, eta hori da adierazi dena:

Zinegotzi guztiak premiazkoztat jotzea berresten dute, gai hori gai-zerrendan sartzeko.

Moziorekin eduki zehatzari dagokionez, aho batez onartu da.



2026AN KIROL JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAK:

Informazio gehiago:
<https://www.odieta.es/eu/dirulaguntzak/>

2026AN ENPLEGUA SUSTATZEKO KONTRATAZIO-RAKO LAGUNTZAK:

Informazio gehiago:
<https://www.odieta.es/eu/dirulaguntzak/>

ZIRKULAZIO ZERGAREN HOBARIA EKO ETA ZERO IGORPENENKO IBILGAILUENTZAT:

Informazio gehiago:
<https://www.odieta.es/eu/category/ordenantza-fiskalak/>

2026AN LEHENTASUNEZ BIRGAITU BEHARREKO EREMUAN SARTUTA DAUDEN BIZITEGI-ERABILERA-RAKO ERAIKINAK BIRGAITZEKO EDO ERABERRITZEKO LAGUNTZAK:

Informazio gehiago:
<https://www.odieta.es/eu/dirulaguntzak/>

EGUZKI ENERGIAREN ETA BESTE ENERGIA BERRIZTAGARRI BATZUEN APROBETXAMENDU TERMIKO EDO ELEKTRIKORAKO SISTEMETAN E.I.O.Z.-REN HOBARIA:

Informazio gehiago:
<https://www.odieta.es/eu/category/ordenantza-fiskalak/>



ULTZANUETA MANKOMUNITATEA: E.U.T.E.-N URAREN TRATAMENDURAKO LINEA BERRIA ETA OBRA OSAGARRIAK.

2015ean, Arraitzen Edateko Uren Tratamendu Estazioa (EUTE) eraikitze lanak egin ziren, Odieta, Ultzama eta Anue ibarrek edateko urez hornitzeko.

Aurten, 2026an, EUTE-n hirugarren tratamendu-linea bat eraikitze lanak egingo dira, udan gehiago kontsumitzen denez,

ur-horniduraren ahalmena handitzeko.

Era berean, ur gordinaren eta tratatutako uraren biltegiak lotuko dituen bypass bat eraikiko da.

Inbertsio horren kostua 328.767,97 €, gehi BEZa da.

Eraikuntza-lan hau Nafarroako Gobernuren Toki Inbertsioen Planean sartuta dago, % 80ko diru-laguntza izanik, BEZik gabe.